

6.Bezeroekiko harremanak

Gure asistente birtual honen helburu nagusietariko bat, bezeroekin nolako harremanak dituen izango litzateke. Argi dagoenez, guk pentsatutako asistente honek jatetxeetan egongo da kasu gehienetan, horregatik, pantailatxo txiki bat instalatu dugu, hainbat lan egiteko, erreztasun handiagorekin: Asistente honek bezeroei beraiei egokitu zaien lekuetara eramango die, asistente honek ahal duen guztia egingo du, bezeroei segurtasuna eta erosotasuna emateko. Horrez gain, bezeroek bazkaltzeko erabakia hartzen dutenean, mahaien azpian dagoen botoia sakatuz, ahalik eta azkarren iritsiko da libre dagoen asistenteak, jan nahi duten janaria apuntatzeko. Jatetxe horren menuan asistente horren pantailan QR bat egongo da menua erakusteko, zure mugikorrarekin QR-a eskaneatu eta hortxe jatetxearen janari guztiak eta edari guztiak aipatuko dira, bere prezioekin barne.

Afaria edota bazkaria bukatzerakoan asistenteak galdera sorta batzuk jarriko dizkio bezeroari, beraien erosotasuna eta babestasuna jakiteko. Baita ere, asistenteek galdera bat egingo diete bezeroei, esanez, ze nolako hobekuntzak egin beharko liratekeen denontzako leku atseginagoa eta seguruagoa izateko. Bukatzeko, asistenteek bezeroei berain esperientzia jatetxean (1tik-10era) emateko aitortuko diete.

